



Hasteko, etxean landutakoa begiratuko dugu. Azal dezatela 33. orrialdean marraztutako topaketa. «Noiz gertatu zen topaketa hori? Norekin egin zenuen topo? Pozik jarri al zinen?».

Eguberri hauetan, beharbada, aspaldi ikusi ez duten senideren batzuekin elkartuko dira...

Katekistak kontakizun hau irakurriko die: *«Behin batean, txikia nintzenez, Errege-egunaren bezperan, kabalgata ikustera joan nintzen nire aitarekin. Baina jende asko zegoen eta ezin nuen ezer ikusi. Orduan, aitak bere sorbalden gainean eseri ninduen, eta handik ezin hobeto ikus nezakeen guztia. Erregeak ondo-ondotik igaro ziren beren karrozetan; ia ukitu ere egin nitzakeen. Errege bat begira gelditu zitzaidan, eta agur egin zidan eskuarekin. Aitaren gainean egon izan ez banintz, Erregeak ez ninduen ikusi ere egingo».*

«Zuek izan al duzue inoiz norabait igotzeko beharra, zerbait ikusi ahal izateko? Kontatu, kontatu».

Ondoren, Jesusek Zakeo topatu zueneko irakurriko dugu guztion artean (Haurren liburuko 30. orrialdean).

Testua irakurri ondoren, alderdi hauek azpimarratuko ditu katekistak:

- Zakeo gizon aberats bat zen.
- Baina Jesus ezagutu nahi zuen.
- Jesusek Zakeo ikusi zuen, eta harengana zuzendu zen.
- Topaketa horri esker, poztu egin zen Zakeo.

Jesusekin egoteak aldatu egin zuen Zakeoren bizitza. Orduetik aurrera, bere ondasunak behartsuekin partekatu zituen.

Zakeoren zuhaitza margotu eta muntatuko dugu. Adarretan (zati orlegian), Zakeo itsatsiko dugu. Adarrak, berriz, enberrari (komuneko paperaren kartoari) erantsiko diogu. Etxera eramateko izango da.

Zakeokin bukatzeko, gertakariaren antzezlan egin dezakegu. Haur bat Jesus izango da, beste bat Zakeo, eta gainerakoak herritarrak izango dira. Aulki bat hartuko dugu zuhaitza izan dadin, eta bertara igoko da Zakeo.

Kandela piztu, eta denen artean Gure Aita errezatuko dugu.





MOZTU eta MARGOTU

edo MOZTU



V GAIA
BUKATUTAKO ZUHAITZA

